

AURKEZPENA

Covid-19ak arazo asko sortu dizkigu. Horietako bat, toki itxietan izan da, izan ere, lehioak irekita edukitzea komenigarria da gelak airezta daitezen. Neguan hotz handia egiten duenez, hotza ez jasateko, jantzi hauek euren klimatizazio-sistemei esker hori sahiesten lagundu dezake. Botoi bat soilik sakatuz, berotasuna nahi dugun denbora eta tenperaturan ezarri dezakegu. Produktu hori ikasleentzat, zein toki itxietan lan egiten dutenentzat zuzendua dago, baina horiez gain, beste hainbat pertsonentzat ere zuzendua dago: fabriketako langile oroei, bulegoetan denbora luzean zehar egon ohi diren pertsoneri, goiz esnatzen diren okinei, adin nagusiko jendeari...eta horrela beste hainbat.

Demagun, dagoeneko pandemiatik atera garela, hori gertatuz gero, gure proiektuak ez luke zeregin handia izango gizartean. Izan ere, gure proiektuaren jatorria Covid-19arengatik izan da. Baina hortara gindoazen, lehen aipatu dugun bezela, pandemiatik aterako bagina, gure proiektua aurrera ateratzeko beste modu bat aurkitu dugu. Adibidez, neguan etekin handia izango luke gure proiektuak. Hala nola, neguan kirola egiteko jantziak sor ditzakegu bero mantentzeko. Gainera, gero eta jende gehiagok izaten du ohitura kirola egiteko kalean, adibidez, korrika egitera, paseatzera eta mendira.

Aipatutako arrazoi guztiengatik, proiektu honen sortzaileen izenean, lan hori aurrera eramatea erabaki dugu arazo hori konpon dadin.